



**GnatZinemako sedeak diren udalerrietako  
DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzat  
naturari buruzko zinema emanaldiak**

GnatZinema Gipuzkoako Natura eta Ingurumeko Zine Erakustaldia da, naturarekin eta ingurumenarekin lotutako ikus-entzuneko edukiak eskaintzen dituena, pertsonok naturarekin ditugun harremanetan sakontzeko helburuarekin.

Aurtengo edizioaren baitan, GnatZinemako sede diren herrietako ikastetxeetara zuzenduriko eskaintza prestatu dugu, Udalarekin elkarlanean. Hain zuzen ere DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzenduriko emanaldiak antolatu ditugu.

**FILMA:** Barbakana, otsoaren aztarna (70 ')

**HIZKUNTZA:** euskara

**EKOIZLEA:** Acajú Comunicación Ambiental

**ZUZENDARITZA:** Arturo Menor

**SINOPSIS:**

Ekoizpen honek hiru istorio bilatzen ditu:

- Alde batetik, Acajú ekoiztetzeko lantalde teknikoarena, zeina saiatuko baita otsoak filmatzen natura bete-betean. Erronka zail horri erantzun beharko diote, eta halako filmaketa batek sortzen dituen arazo ugariak gainditu.
- Beste alde batetik, otso saldo baten bizimodua erakutsiko da, haren ingurune naturalean. Ikusiko dugu nola jaiotzen diren otsokume berriak, eta ezagutuko dugu nolako den familia-klan baten egunerokoa.
- Eta sartuko gara otsoaren errealitate sozialaren barruan: espezie bat, zeinak bihotza sutan jartzen baitu irrikaz nahiz gorrotoz, eta maitasuna eta gaitzespena sortzen baititu. Abeltzainak, otsoaren alde eta kontra daudenak.

Hiru kontakizun paralelo, denboran eta espazioan, azkenean bat egingo dutenak. Ahalegintzearen eta gairatzearen kronika bat, ezagutzera eman nahi duena zer-nolako garrantzia duen otsoak ekosistema iberiarretan, eta zer kontserbazio-arazo dituen. Hori dena zinema digitaleko kamerarik modernoekin filmatua, filmaketa-tresnarik aurreratuenekin.

Saioen aurretik, izena emandako ikastetxeetara aurrez eta ondoren gelan landu ahal izateko dokumentua bidaliko dizuegu.

**Izena ematea:** mezu elektronikoari erantzunez.



GnatZinemako sedeak diren udalerrietako  
DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzat  
naturari buruzko zinema emanaldiak

SAIOEN EGUTEGIA / Martxoak 2023

Martxoak / Marzo	Udalerría / Municipio	Lekua / Lugar
21	ORDIZIA	HERRI ANTZOKIA
22	OÑATI	ZINEMA
23	AZPEITIA	SOREASU
24	MUTRIKU	ZABIEL KULTUR ETXEA
24	EIBAR	COLISEO
28	EIBAR	COLISEO
29	ERRETERIA	NIESSEN
30	TOLOSA	LEIDOR
31	ZUMARRAGA	ZELAI ARIZTI

EGOITZA LAGUNTZAILEAK  
SEDES COLABORADORAS

